

getxoBerri

/ Nabarmenezkoak

- > Argi berdea eman dio Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeak HAPOrri (2. or.)
- > Gabonetako oporrek batera "Gabonetan" zikloa eta zirku campusa datoz (3. or.)
- > "Azumendi", liburu itxurako proiektu pertsonala (4. or.)



Gabonetako kontzertuak. Gabonak ospatzeko hainbat errezitaldi herriko abesbatzen eta gonbidatuen eskutik.

A-
GENDA

Erregeen kabalgata. Urtarrilaren 5ean, igandea, 17:30ean, Andra Mari-Algorta ibilbidea, eta 19:30ean, Romo-Areeta ibilbidea. Amaitutakoan, maiestateen harrerak.

Gabonetan: elurrezko bola erraldoiak selfieak ateratzeko eta Mari Domingi eta paje bat bizikletaz kaleetan zehar, haurren gutunak jasotzeko

Eguberri honetan, getxotarrek eta bisitatzen gaituztenek elurrezko bola erraldoi baten barruan selfieak ateratzeko aukera izango dute, Gabonetako kristalezko elur-bola tipikoen antzera. Horrekin batera, Mari Domingi eta paje bat bizikletaz ibiliko dira kaleetan zehar postontzi batekin, haurrek Olentzerori eta Ekialdeko Errege Magoei idatzitako gutunak jasotzeko.

"Aurten Gabonak ospatzeko jarduera gehiago antolatzen ari gara, ohiko egitarauari elur-bola eta Mari Domingiren bizikleta-ibilbidea gehituz. Pozten nau ikusteak hainbat ekitaldi prestatzen ari direla getxotar guztiok egun berezi hauetaz gozatzeko aukera izan dezagun, non kaleak argiz eta familia edo lagun arteko topaketez betetzen diren. Getxolandiatiak hasi eta Olentzero, Mari Domingi eta Errege Magoen desfileekin batera, kultur eta kirol eskaintza zabalarekin dibertitzeko aukera ugari izango dugu. Gabon zoriontsuak eta urte barri on opa dizuet", opatu du Amaia Aguirre Getxoko alkateak.



ELURREZKO BOLA ERRALDOIAK	
Areetako Geltokia plaza	Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra 11:00-14:30 eta 17:00-21:00h
Algortako Geltokia plaza	
(*) Udalak herritarrak argazkiak gizarte sareetara igotzera animatzen ditu #GetxoUdala traolarekin eta bi sarrera zozketatuko ditu <i>Go!azen</i> ikuskizunerako	

IBILBIDEAK BIZIKLETAZ OLENTZERO ETA ERREGE MAGOENTZAKO ESKUTITZAK JASOTZEKO				
Abenduak 22 (Mari Domingi) eta urtarrilak 3 (pajea)	11:00etan Andra Mariko kiroldegian 17:00etan Neguriko metroko plazan	11:30ean Bidezabal parkean 17:30etan Gernika parkean	12:30ean Aldapa parkean 18:30ean Romoko Santa Eugenia	13:30ean Algortako Geltokia plazan 19:30ean Areetako Eskoletako plazan
Abenduak 23 (Mari Domingi) eta urtarrilak 4 (pajea)	11:00etan Areetako Geltokia plazan 17:00etan Andra Mariko kiroldegian	11:30ean Romoko Santa Eugenia 17:30ean Bidezabal parkean	12:30ean Gernika parkean 18:30ean Aldapa parkean	13:30ean Neguriko metroko plazan 19:30ean Algortako San Nikolas plazan
Abenduak 24 (Mari Domingi) eta urtarrilak 5 (pajea)	11:00etan Areetako Geltokia plazan		13:00etan Algortako San Nikolas plazan	

* Bestalde, Udalak Romo herri-ikastetxeko jolastokia zabalduko du aurten ere, aparkaleku publiko gisa erabiltzeko, abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1, 5 eta 6an. Orduetgia abenduaren 24ko 16:00etatik abenduaren 25eko 22:00ak arte izango da. Abenduaren 14tik urtarrilaren 6ra arte ere, bi orduz luzatuko du udalerriko ostalaritza-establezimenduak ixteko ordutegia.

Getxolandiak haurrak erakarriko ditu berriro Gabonetan

Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra eta, ohi bezala, Euskadiko Feriariaren Elkartearen eskutik, Areetako Geltokia plazan Getxolandia Gabonetako Haur Parkea egongo da, etxeko txikienek Gabonetako oporraldiaz goza dezaten.

Oraingoan, hurrengo atrakzioak jarriko dituzte: zaldiko-maldikoa, herensugea, super igela, wipe-out (puzgarri birakaria), talka-autoak eta ohe elastikoak. Gainera, ahate arrantzarako postu bat egongo da, baita txurro denda eta gozokiak saltzeko postua ere. Bidaia baten prezioa 2 eurokoa izango da eta 5 bidaiaren bonoa 7,50 eurokoa. 11:00etatik 14:30era (lehen astean aukeran) eta 17:00etatik 21:00etara irekiko da. Hasiera batean, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.





Argi berdea eman dio Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeak HAPOri

ABENDUAK 19 OSTEGUNA

Gabon kontzertua. 20:15ean, Algortako Irutasun elizan, Irutasun (Algorta), Itxartu (Algorta) eta Lagun Artea (Sopela) abesbatzekin.

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Euskal Mitologia" Sorgina txirulinarekin. 4-8 urte.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Fermin Muguruzaren "Bidasoa 2018-2023"-ren emanaldia (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

ABENDUAK 20 OSTIRALA

Getxolandia-Umeentzako Gabonetako Parkea. Urtarrilaren 6a arte, Areetako Geltokia plazan. Ordutegia: 11:00-14:30h, goizean (aukerazkoa lehen astean) eta 17:00-21:00h, arratsaldetan (abendua 25 eta urtarrilak 1, itxita).

Antzerkia. 19:30ean, Muxikebarrin, "Miñan" Ibrahim Balde eta Amets Arzallusekin (euskeraz). Sarrera: 8€.

Gabonetako IV. organo zikloa. 20:00h, Bariko San Nikolas parrokian, kontzertua Javier Morena Lorenzoren eskutik.

Zine Klub. 20:30h, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Alexander Payneen "Los que se quedan" filmaren proiektzioa (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

ABENDUAK 21 LARUNBATA

Gabon kontzertua. 19:00h, Muxikebarrin, Biotz Alai abesbatzaren emanaldia. Gonbidapenak agortuta.

Jazz kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "2024 Bejerano Station". Abeslari gonbidatuak: Izaskun Alzola, Saul Santolaria eta Mercedes Echevarri "Ce". 5€.

Antzerkia. 20:00h, Muxikebarrin, "Desplaza-Dos", Euri artean konpainiaren eskutik (gaztelaniaz). 6€.

ABENDUAK 22 IGANDEA

Olentzero. Neguri-Gobela gunea (ikus 3. or.)

Dantza. 19:00h, Muxikebarrin, "Coppélia", Arte Ederria Ballet Gaztearekin. 5€.

Zinematik. 12:00h, Muxikebarrin, "Elkano lehen mundu bira". 2,50€.

Gabon kontzertua. 19:45ean, Areetako Ama Mesedeetako parrokian, Ars Canticum ensemble, koru eta ganbera-orkestraren emanaldia.

ABENDUAK 23 ASTELEHENA

Olentzero. Algorta, Areta, Romo eta Andra Marin (ikus 3. or.)

Antzerkia. 18:00etan, RKE-Romo Kultur Etxean, "Trapos" antzeztuko du Coriolis Compañía de Teatro de Objetos taldeak (gaztelaniaz). 5€.

IV. organo gabon zikloa. 20:00etan, Algortako Bariko San Nikolas elizan, Lourdes Martínez-en (sopranoa) eta Pedro Guallaren (organoa) kontzertua.

ABENDUAK 24 ASTEARTEA

Olentzero. Algorta, Areta, Romo eta Andra Marin (ikus 3. or.)

ABENDUAK 26 OSTEGUNA

Antzerkia. 18:00etan, RKE-Romo Kultur Etxean, "Egunen Batean", Behibi's-en eskutik (euskeraz). 5 urtetik aurrera. Sarrera: 5€.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Todd Haynesen "Secretos de un escándalo"-ren emanaldia (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

ABENDUAK 27 OSTIRALA

Antzerkia. 19:00etan, Muxikebarrin, "Organik", Amezte taldearekin (euskeraz). 5€.

Kontzertua. 21:00h, Muxikebarrin, Smilen "Rayo verde" kontzertua. 12€.

Zine Klub. 20:30h, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Alejandro Marinen "Te estoy amando locamente" filmaren proiektzioa (gaztelaniaz). 7 urtetik aurrera. 3,50€.

ABENDUAK 28 LARUNBATA

Antzerkia. 19:00h, Muxikebarrin, "Entrañas", El Patio Teatrotoren eskutik (gaztelaniaz). Sarrera: 5€.

Zarzueta. 19:00h, Muxikebarrin, "El barbero de Sevilla". 15€.

ABENDUAK 29 IGANDEA

Zinematik. 12:00h, Muxikebarrin, "Digimon adventure 02: The beginning". 7 urtetik aurrera. 2,50€.

Haur zinea. 17:00h, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, "Nur eta herensugearen tenplua" (euskeraz). 2,50€.

IV. organo gabon zikloa. 20:00etan, Algortako Bariko San Nikolas elizan, Xabier Andrada (biolina) eta Andoni Andrada (organoa) musikarien kontzertua.

ABENDUAK 30 ASTELEHENA

Antzerkia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "tÁ", Escena Miriñaquearen eskutik (gaztelaniaz). 5€.

URTARRILAK 2 OSTEGUNA

Antzerkia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Kontukantari bi, mendian ibiltari", MAuMA Elkar-tearekin (euskeraz). 5€.

URTARRILAK 3 OSTIRALA

Antzerkia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Hansel y Gretel", Higiénico Papel Teatrotarekin (gaztelaniaz). 5€.

URTARRILAK 4 LARUNBATA

Antzerkia. 18:00h, Romo Kultur Etxean, "Y los sueños... libros son", Producciones Kinserekin (gaztelaniaz). 5€.

URTARRILAK 5 IGANDEA

Erregeen Desfilea. 17:30ean, Andra Mari-Algorta ibilbidea, eta 19:30ean, Romo-Areta ibilbidea. Amaitutakoan, Erregeen harrera Algortako Musika Eskolan eta Romo Kultur Etxean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak (EAELAB) aldeko iritzia eman dio Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) behin-behinean onesteko dokumentuari, eta, horri esker, Udalak, egiteke dauden sektore-txostenen kontura, laster onartuko du HAPO behin betiko. Beraz, gezurtatu egiten da joan den ostiralean *El Correo* egunkariak argitaratutako titularrak: "Eusko Jaurlaritzak Getxori eskatu dio Fadura handitzeko proiektua bertan behera uzteko, Bolueko hezegunea arriskuan jartzen duelako", bai eta EH Bilduk aste honetan zabalduko prentsa-oharra ere.

Joan den azaroaren 28an, EAELABren osoko bilkuran, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak HAPOren berrikuspenaren txostena irakurri eta Getxoko Udalarari eman zion.

Txosten honek HAPO aztertzen du lau ataletan (Ingurune fisikoa; Bide-azpiegituren, trenbide-azpiegituren eta zerbitzu-sareen sistema orokorrak; Espazio libreak eta ekipamenduak; eta Egoitza eta jarduera ekonomikoaren kokaguneak) eta sei eranskinetan (Natura Ondarea eta Klima Aldaketa; URA-Uraren Euskal Agentzia; Etxebizitza; Kultura Ondarea; Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurralde Antolamendua; eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Bide Berrikuntza eta Kudeaketa).

"Horietatik guztietatik, azpimarratu nahi dugu EAELABk balorazio oso positiboa egiten duela Azkorriko lurzoruen desklasifikazioa bermatzen duten lurralde-ereduaren zehaztapenei buruz, horiek zaintzeko, bai eta lurzoru urbanizagarri gehienak xehetasunez antolatzeko ahalegina ere", Hirigintza Plangintza, Kudeaketa eta Diziiplina Arloko zinegotzi Álvaro Gonzálezek adierazi duenez. "Era berean, txostenak oso balorazio ona jasotzen du bizitegi-kuantifikazioa pixkanaka eta Getxoko etorkizuneko errealitate demografikora egokitzeko definizioari buruz, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen kuantifikazioari buruz, Punta Galea-Barrika intereseko espazio natural gisa babesteari buruz eta Mimenagako zonan bateragarritasun-eremu bat definitzeari buruz", gaineratu du.

Eranskinak

Erantsitako 6 txostenei dagokienez, Natura Ondareari eta Klima Aldaketari buruzkoa Eusko Jaurlaritzak berak zuzenduko du ingurumen-ebaluazioaren prozeduran; izan ere, akats baten ondorioz, hasierako onespeneren dokumentuaren berri eman dute, behin-behineko onarpenaren dokumentuaren orde. Nolanahi ere, behin-behineko onarpenaren dokumentuak EAeko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenak betetzen ditu, eta aldeko txostena emango zaio, EAELABn osoko bilkuran adierazi zuten bezala.

URA-Uraren Euskal Agentziarenak positiboki baloratzen ditu HAPOren antolamendu orokorreko analisiaren funtsezko alderdi guztiak (jabari publiko hidraulikoa, uholde-arriskua, hornidura eta saneamendua), eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena falta da.

Etxebizitza Sailaren txostenak babes publikoko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokien banaketaren alde egiten du, eta babes publikoko etxebizitzaren likidazio-txostena egiteko eta hiri-lurzoruan integratutako jarduketak transferitzeko eskaera egiteko baldintza formalak betetzeke uzten ditu soilik.

Kultura Ondarearen txostena aldekoa da, baina zuzendu beharreko 3 alderdi aipatzen dira, eta dagoeneko adostu da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin txosten hori behar bezala tratatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Lurralde Antolamendua txostenak, azpiegituren arloko eskumenetatik eratorritako azalpen eta zuzenketa formalak alde batera utzi gabe, HAPOren aldeko balorazioa egiten du, eta paisaia gainjarritako baldintzatzailetzat hartzea eta eraginkortasun loteslea duten zeharkako gaiak sartzea nabarmentzen du, hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde-erlazioa.

Eta, azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bide Berrikuntza eta Kudeaketako txostena ere HAPOren aldekoa da, eta zuzenketa txiki batzuk egin ditu Zubilleta eta Martituri eremuetan.

"Laburbilduz, EAELABk antolamendua balorazio positiboa egiten du, eta HAPO berriaren iraunkortasun integratua oinarritutako proposamen hori izapidetzeko 8 txosten sektorial eta Ingurumen Adierazpen Estrategikoa baino ez dira falta, behin betiko onartu ahal izateko beharrezko baldintzak osatzeko", adierazi du, azkenik, Álvaro Gonzálezek.



Bidezabaleko arrapalak eta Ereagako igogailua berritzeko finantzaketa aurreratu da

Udal Gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) Bidezabaleko arrapalak osorik eta Ereagako igogailuaren zati bat berritzeko lanen finantzazioa aurreratu du. Bidezabalen, 3. eta 4. arrapaletarako obrak 2025eko lehen hiruhilekoan egitea espero da, eta dagoeneko esleitu dira. Eta 1. eta 2. arrapaletarako (beheko biak), 610.000 euroko balioarekin eta Gobernuak eta PPK 2025eko udal-aurrekonturako lortutako akordioaren ondorioz, finantzaketa aurreratu da 2024.eko Aurrekontuaren kontura, bai eta Ereagako igogailuaren zati bat berritzeko ere, 150.000 euroko balioarekin eta aipatutako akordioaren ondorioz.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Askotariko antzerkia Muxikebarrin

Hiru antzezlan berrik itxiko dute 2024ko Muxikebarriko antzerki eskaintza: *Miñan*, *Desplaza-dos* eta *Viaje a Oz*.

Lehenengoa, *Miñan*, euskaraz antzeztuko da ostiral honetan, hilak 20, arratsaldeko 19:30etik aurrera. Muxikebarrirekin batera, Amets Arzallusek izenburu bereko liburuan oinarritutako obra bat taularatuko du. Muntaian Ibrahima Balde ginearraren bizipenei bizia ematen die. Obraren egilea da Arzallusekin batera. Sarrera 8 euro.

Hurrengo egunean, hilaren 21ean, larunbata, *Desplaza-dos* antzezlaren txanda izango da, Euri artean konpainiarekin, 20:00etan, gaztelaniaz. Minetik eta indarkeriatik ihesi etxetik alde egin behar izan duten pertsona latinoamerikarren istorioak kontatzen ditu. Sarrera: 6 euro. Azkenik, igandean, hilak 29, Muxikebarrin bere azken emanaldia hartuko du, 18:00etan, *Viaje a Oz*, haurrentzako muntaia (5 urtetik aurrera), Trencadis Produccions taldearen eskutik, gaztelaniaz. Frank Baumen obraren bertsio modernoa da, eta Doraren eta bere marrazkien istorioa da, irudimeanean eta musikan barrena egindako ibilaldia. Sarrera: 10 euro.

Erakusketa solidarioa Algortan

José Manuel Casalek formatu eta gai desberdinetako 20 akriliko jarri ditu ikusgai Algortako Batzokian, Getxoko txokoetan eta Galiziako lurretako paisaiaren batean oinarrituta. Erakusketa hau bi elkarteren onerako da: Getxoko San Nikolas zabalik eta A Coruña-ko Discapacitados Activos de As Pontes elkarteak.

Erakusketa 2025eko urtarrilaren 31ra arte egongo da ikusgai, 9:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 23:00etara.



Olentzero eta Mari Domingi prest beren desfileak Getxoko kaleetatik egiteko

Olentzeroren eta Mari Domingiren inguruko ekintzen antolaketan parte hartzen duten elkar-teak, dantza taldeak eta kolektiboak, Udalarekin elkarlanean, bereziki haurrei ilusioa ekartzeko, motorrak berotzen ari dira udalerriko auzoetan.


Hilaren 22tik aurrera hainbat ekitaldi eta desfile tradizional egingo dira, besteak beste, Getxoko hainbat gunetan Mari Domingik bizikletaz esku-titzak biltzeko Udalak antolatutakoarekin batera (ikus azala).

Abenduaren 22an	
NEGURI-GOBELA	17:30ean kalejira Olentzero eta Mari Domingirekin, eta 19:00etan harrera Olentzero eta Mari Domingiri Gernika parkean. Ibilbidea: Makedetako etorbidea (Garbigunetik)-Gernika parkea
Abenduaren 23an	
ROMO	17:30ean umeentzako tailerrak. Olentzerori eta Mari Domingiri harrera eta haurren gutunak jasotzea Santa Eugenia plazan.
ALGORTA	19:00etan ume bertsolarien saioa Algortako San Nikolas plazan, eta 20:00etan Taberna Ibiltaria, San Nikolas plazatik.
AREETA	18:30ean haur antzerkia Eskoletako plazan.
ANDRA MARI	17:00etan haurrentzako jolasak eta eskulanak. Animazioa trikitilari eta txistulariekin Malakaten. 18:30ean trikitixa eta pandero doinuak.
Abenduaren 24an	
ROMO	17:30ean kalejira Olentzero eta Mari Domingirekin: dantzak, abestiak eta gozokiak Santa Eugenia plazan. 18:30ean ongi etorria bie. Txokolate jana eta Olentzero erretzea. Ibilbidearen hasiera: Santa Eugenia plaza.
ALGORTA	11:00etan puzgarriak Algortako Geltokia plazan. 17:00etan kalejira Benantziotik hasita. 19:30ean Olentzero eta Mari Domingiren agurra: txalaparta, bertsolariak, dantzariak eta, Olentzeroren kondaira. Olentzero erretzea San Nikolas plazan. Ibilbidearen hasiera: Sarrikobaso.
AREETA	10:30ean kalejira Eskoletako plazatik Bizkaia zubiraino eta Olentzeroari eta Mari Domingiri harrera. 11:00etan erakusketak, pintura lehiaketa, bertsolariak, dantzak Berantzagirekin eta Gabon saskiaren zoketa. 18:30ean kalejira eta Berantzagi Dantza Taldearen emanaldia Eskoletako plazan. 20:00etan Olentzerori agurra plazan. Ibilbidearen hasiera: Eskoletako Plaza
ANDRA MARI	17:00etan kalejira txistulari, eta dantzarekin Andra Mariko kiroldegitik. 19:15ean Olentzero eta Mari Domingiri harrera, gabon kantekin eta dantzekin. Olentzero erretzea Malakaten. Ibilbidearen hasiera: Andra Mariko kiroldegia.

Gabonetako oporrekin batera "Gabonetan" zikloa eta zirku campusa datoz

Esolan oporrak direla eta, Romo Kultur Etxeak *Gabonetan* zikloa hartuko du, familientzako eta haurrentzako ikuskizunak. 12:00etan izango dira. Hilaren 23an *Trapos* txotxongilo ikuskizuna eskainiko da eta, 26an, *Egunen batean* antzerkia. Abenduaren 27an eta 28an, *Ameztu* eta *Entrañas* antzerki muntaiak, eta 30ean, *tA* ikuskizuna.

Urtarrilean, zikloari jarraipena emateko: *Kontukantari bi, mendian*



ibiltari (2an), *Hansel y Gretel* (3an) eta *Y los sueños... libros son* (4an) irakurmenari buruzko lana. Ikuskizun bakoitzerako sarrerak 5 euroko prezioa izango du.

Zirku campusa

Gainera, aurten, Getxo Kulturak zirku campus bat proposatzen die haurrei, non Zirkun Zirkuko Eskolak hainbat teknika irakatsiko dituen, hala nola malabareak, orekak edo lurreko eta aireko akrobaziak. Plazak beteta daude daborduko.



Lehen aldiz banatu da AixeGetxo Gaztea saria

Aixegetxo! sariak banatu dira, bertako talentua omentzeko

Getxoko kultura izan zen protagonista iragan asteazkenean, hilak 11, Muxikebarrin, non AixeGetxo! sariak banatu ziren, kulturaren munduari lotutako bertako artista, eragile eta kolektiboek egindako lana saritzeko.

Laida Lertxundi zinegile, artista eta irakasleak Ikusizko eta Ikus-entzunezko Arteen saria jaso zuen. Esparru horretan, bere lana arte kontzeptualaren eta zinema estrukturalaren ideiak gorputz-adierazpenetik lantzen duen ikuspegi feministarekin bateratzeagatik nabarmentzen da. Bere lana New Yorkeko MoMa edo Londresko TateModern bezalako museo eta galerietan erakutsi da. Arte Plastikoen atalean, **Higinia Garay** ilustratzaile eta komiki-artistarentzat izan da saria. Haren lana hainbat erakunderen argitalpen eta proiektuetan ikus daiteke, hala nola Thyssen-Bornemisza Museo Nazionalean, Gazteen Gurutze Gorrian, La Caixa Gizarte Ekintzan eta Tabakalera.

Bestalde, **Olatz Ganboa** aktoreak Arte Eszenikoen saria jaso zuen bere ibilbideagatik, eta, horren ondorioz, *Lytceum Club*, *La casa de Bernarda Alba*, *Ay*, *Carmela!*, *La lucha por la vida* eta *¿Medejasdarle el biberón?* bezalako lanetan parte hartu du, besteak beste. Musika Klasikoaren eta Garaikidearen atalean, **LuminitaDuca** piano-jotzaileari eman diote saria. Bakar-lari gisa eta ganbera-formazioen esparruan ibilbide ezaguna du. Egungo Musika modalitatearen saria **Paula Mattheus** kantautoreak irabazi du, 2021az geroztik eszenatokietan nabarmendu dena eta Rozalén bezalako artistekin kolaboratu duena.

Literatura mailan, **Alaitz Leceaga** idazle gazteak jaso zuen saria, *El bosque sabe tu nombre* eta *Las hijas de la tierra* eleberrien egileak, besteak beste. 2021ean Fernando Lara saria irabazi zuen *Hasta donde termina el mar* izenburuko lanarekin. Diseinuko saria, berriz, **Benicio Aguerrea-**

rentzat izan da. Izan ere, hiru hamarkadatik gorako ibilbide profesionala du, hainbat proiektutan parte hartu duelarik.

Gastronomiako AixeGetxo! saria **Javier Izarra** Tamarises Izarra jatetxeko sukaldeburuarentzat izan da. Proiektu hori duela urte batzuetatik gidatzen du, Fernando Canales Etxanobe bezalako sukaldari ospetsuekin lankidetzan aritzeari utzi gabe. Hezkuntza eta Balioen atalean, **Lilura abesbatza** izan da irabazlea, Getxoko haur eta gazteen lehen abesbatza eta bakarra da gaur egun. 2016an sortu zenetik, Mariasun Yanguasen zuzendaritzapean, lotura estua du Getxorekin, eta bertoko kultura-eskaintzaren parte da.

Agustín Sánchez Lavega astrofisikariak Kultura Zientifiko eta Berritzailearen saria jaso zuen atmosfera planetarioen ikerkuntzan egindako lanagatik, eta gai horri buruzko 40 proiektutan parte

hartu edo gidatu du, Bilboko Injeniaritza Eskolan egindako lana ahaztu gabe. Oraingoan, Kultur Ondare Hautemangarri eta Ukiezinaren saria **Manu Gómez Martínek** eta Oskar Fernández Garcíaak jaso dute. Getxo Kulturako Zine-Klubeko dinamizatzaileak dira ekimen horren hasieratik, eta haien lanak zaletu ugari erakarri ditu zazpigarren artearen mundura.

Luzaroko ibilbide profesional eta artistikoaren atalean, **Pedro Guallar** organistarentzat izan da saria ekitaldi honetan, musika-tresna horren esparruko figura nabarmena baita, eta hainbat hamarkadatan zehar irakasle, konpositore, interprete eta hainbat ekimenen sustatzaile gisa jardun baitu. Azkenik, aurtun, lehenengo aldiz, Aixe Gaztea saria banatu da. Saria gazteei zuzenduta dago, jakina, eta **Miren Kareagak** jaso du arkitekturaren eta arteen munduan egindako ibilbideagatik.

Gonzalo Martínez Azumendi argazkilari getxotarrak munduan zehar egindako bidaiaren bere ikuspegia jaso du, bere unibertsoa

“Azumendi”, liburu itxurako proiektu pertsonala

Gonzalo Martínez Azumendi argazkilari freelance getxotarra *Azumendi unibertsoa* bere proiektu pertsonalaren aurkezpenean murgilduta dago. Proiektu hori planetaren luzetabalean urteetan egindako argazkien liburu batean amaitu eta islatu da. 266 orrialdeko liburuak 150 irudi ditu guztira. Egileak berak aitortzen duenez, “liburu bat baino kontakizun pertsonala da, erabateko gozamina. Unibertsoari begiratzen diot, horren zati bat bainaz eta besarkatzen dut, epaitu gabe eta deskribatzen saiatu gabe, testuingurutik kanpo dauden eszena eta argazkien segida batean, askotan surrealistikak direnak, hainbat galdera eta interpretazioei irekita daudenak, unibertsoari berari begira daudenak beste”.

Liburuaren orrialdeak, munduari argazkiak ateraz beren irrika eta ilusioekin Azumendirekin gurutzatu diren pertsonen egindako omenaldia dira. “Liburua positiboa, distiratsua, ederra da. Energia uholde bat, bizi naizen munduaren argazki itzeletan gainezka egina. Hitzik gabe. Amets egiteko eta hegan egiteko bidaia bizia. Behin



eta berriz hasieratik, erditik edo atzekoz aurrera irekitzeko moduko liburu”, esan du.

Ricky Dávilak (koordinazioa), Eukene Olaguek (argazki-tratamendua) eta Nacho Carrascok (diseinu grafikoa) kolaboratu dute liburuan eta salgai dago www.gonzaloazumendi.com webgunean. 50 euroko prezioa du.

Lau hamarkadatik gora munduari argazkiak ateratzen

Gonzalo Azumendi, Psikologian lizentziatua, Getxoko Kultur Etxean hasi zuen argazkilari



ibilbidea, kultur ekitaldiei eta kontzertuei argazkiak ateraz. Lau hamarkada baino gehiago dramatzat proiektu kontaezinetarako munduari argazkiak ateratzen, argitalpen-munduan murgildurik (Panamako kanalaren liburu ofiziala, Bolivia, Donejakue Bidea, Maroko...), beti bidaia-erreportajeak egiten aldizkari ospetsuetzat, hala nola *National Geographic* eta *Viajar*, eta horregatik ibilbide profesional handia du. Gainera, 15 urtez, Azumendik lan egin du UNESCOrentzat Munduko Ondarea dokumentatzen, munduko alde batetik bestera. Bere argazkietan gizakiarekiko interes handia nabarmentzen da.



Eskolako gastuetarako laguntzak 857 familiari

Udalak 857 laguntza eman dizkie Getxoko familiei 2024/25 ikasturteko Hezkuntzako gastu orokorretarako. Guztira 147.100 euroko balioa dute, hau da, aurreko deialdian baino 36.400 euro gehiago. Era berean, familia bakoitzarentzako diru-laguntzen zenbatekoa ere handitu egin da. Haur eta lehen hezkuntzan, laguntza 75 eurotik 100 eurora igo da, eta bigarren hezkuntzan, berriz, 125 eurotik 150 eurora. Laguntzak gutxienez 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera erroldatuta dauden eta bigarren zikloko (hiru urte) Haur Hezkuntzatik DBHko mailara (barne hartuta) seme-alabak eskolatuta (eta antzinatasun berarekin erroldatuta) dituzten udalerriko pertsoneri zuzenduta daude. Guztira, 1.264 adingaberi ematen zaizkie laguntzak, honela banatuta: 240 Haur Hezkuntzan, 603 Lehen Hezkuntzan eta 421 DBHn.

Musika da protagonista egun hauetan herrian

Getxon Eguberriez gozatzeko askotariko ekintzen artean musika dago. Abenduaren 28an, larunbata, 19:00etan, Muxikebarrin, *El barbero de Sevilla* ikusi ahal izango da, korapiloen komediako zarzuela handienetako bat. Martin i Soler orkestrak aurkezten du eta Elena abeslari izateko hautagaiaz hitz egiten du. Bere aitak ukatu egiten dio amets hori, La Roldan soprano ospetsuarekin abentura bat duelako. Sarreraren prezioa 15 eurokoa da.

Kontzertuei dagokienez, ostira-lean, hilak 27, 21:00etan, 12 euroko sarrerarekin, Smile talde getxotarra igoko da Muxikebarriko agertokira, John Franks buru duela, eta etxera itzuliko da, oso emanaldi berezi batean, gaztelaniazko bere lehen diskoa aurkezteko. Aurretik, larunbat honetan, hilak 21, Biotz Alai izango da Muxikebarrin, baina 19:00etan. Eguberrietako ohiko

kontzertua eskainiko du. Gonbidapenak agortuta daude.

Eta larunbat honetan bertan, hilak 21, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Ana Bejeranoren omenezko kontzertua izango da; jazz saio bat izango da Izaskun Alzola, Saul Santolaria eta Mercedes Echevarri Ce-rekin. Sarrerak: 5 euro.

Gabonetako ordutegiak Getxo Kirolak-en

Gabonetako jaiak direla eta, Getxo Kirolak udal erakundeko kiroldegiak itxita egongo dira abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean. Abenduaren 24an eta 31n, bestalde, instalazioak 13:00etatik aurrera itxiko dira (kirol-jarduerak 12:30ean amaituko da eta ordu erdi utziko zaio jendeari aldage-lak erabiltzeko).

Udaltzaingoaren segurtasun-kanpaina egun hauetan

Urtarrilaren 18ra arte egingo da Algorta, Areta eta Romoko merkataritza-guneetako Gabonetako segurtasun- eta zaintza-kanpaina. Udaltzaingoak jarri du martxan kanpaina, Ertzaintzarekin lankidetzan. Polizia-lantaldean honako unitate hauek hartzen dute parte: Bizilagunen Babesa, Argiketak, Trafikoa, Auzozainak, Merkataritza eta Ikerketa.

Bi polizia kidegoetako agenteek

aurrezaintza areagotu dute, ibilgailuz eta oinez beteko dute eginkizun hori, udalerriko denda gehienak dauden guneetan. Gabonetako dispositibo berezi honen helburua delitu-egitateak prebenitzea da, normalean ebasketa eta lapurreta txikiak. Horiei buruzko edozein gorabeheraren aurrean, polizia-zerbitzuei berehala abisatzea gomendatzen da (94 466 02 02 eta/edo 112), eta, betiere, gertatutakoa salatzea.

TAO baimenaren berritze automatikoa

Udalak gogorazi nahi die Araututako Aparkaleku Zerbitzuko (TAO) egoiliarrentzako aparkaleku-baimena duten pertsoneri, baimen hori luzatuko dela automatikoki 2025eko urtarrilaren 1ean, **baldin eta baimena emateko erabili ziren baldintzak betetzen jarraitzen badute**. Bestalde, **aparkaleku-baimen bereziak** ere ofizioz luzatuko dira.

Argibide gehiago jaso nahi izanez gero: <https://labur.eus/KXkAF>



Valentziara zeregin solidarioan abiatutako lau udaltzaini agur esan zien alkateak

Lau udaltzain Valentziara abiatu dira, oraingoan Catarroja udalerrira, pasaden urrian jasandako denboralearen ostean laguntze aldera berriro. Lau polizia boluntario bi polizia-ibilgailu errotulatuekin joan dira berriro, udalerriri horretako agentei beren lanetan laguntzeko. Amaia Aguirre alkateak, udal gobernuaren izenean, astelehenean, abenduak 16, agur esatera hurbildu zen eta agente horien lan boluntarioa nabarmendu eta eskertu zuen, "behar unetan udalerraren elkartasunaren adierazpena".



Urteko azken omenaldia Maria Ángeles Moro Moro ehun urtekoari

Amaia Aguirre alkateak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Maria Ángeles Moro Moro bisitatu zuten aurreko ostegunean, hilak 12, egun bizi den Beato Domingo Iturrate egoitzan, 100 urte bete izana ospatzeko. Getxon jaioa, emakumeak bizitzaren parte handiena eman du udalerrian bizi. Alaba biren eta seme baten ama denak sei biloba eta bi birbiloba ere ditu. Agintariekin ohiko Aixerrrotaren oroigarria eta lore sorta bat eman zizkioten getxotarrari.

Udal talde politikoaren iritzia



ZORIONAK ETA URTE BARRI ON!!

Gabonak, neguko jaiak edo norberak, bere inguruarekin, lagunekin eta familiarekin ospatzea erabakitzen duena beti da garrantzitsua. Topo egiten dugula ospatu, maite ditugunekin gozatu egiten dugula eta, kasu askotan, bizitzak ematen dizkigun gauza on eta ez hain on guztietarako gure sarea eta gure konfiantza-, maitasun- eta erreferentzia-zirkulua osatzen dutenekin. Nork bere neurrian eta ahal duen neurrian ospatzea. Ospatu, elkartu, bildu eta gozatu.

GETXO GABONAK, aurten ere, kultur, gizarte, kirol eta aisialdiaren arloko ehunka proposamenekin iristen zaigu, Getxon bizi diren eta herrian disfrutatzeko duten pertsona guztientzat, baina baita egun hauetan gurekin egon nahi dutenentzat ere, izan ere benetan guztientzat direlako. Ehunka proposamen eta jarduerak, batez ere Gabonetako



oporraldiaz asko gozatzen duten haur txikienentzat pentsatuta eta prestatuta, baina baita hain ume ez direnentzat eta helduentzat ere; guztientzat. Askotariko jarduerak, gure herriko merkataritza eta aisialdi sektorearekin lankidetzan estuan

Getxoko udaleko arlo ezberdinek antolatutakoak. Izan ere, guztiok, baita Gabonetako garai honetan ere, herria egiten eta eraikitzen jarraitu nahi dugu, Getxoko bizilagunen topaguneak eta bilera-erreferenteak garatuz.

Abenduaren 1etik errege eguna iritsi arte agenda osoa eta askotarikoa dugu gure kale eta plazetan, besteak beste Muxikebarrin, RKE, edo hainbat kultura-, gizarte- eta kirol-gunetan. Kontzertuak, bertsoak, ipuinak, lasterketak, igeriketa, antzerkia, zirkua, Olentzero eta Maridomingi...

Beraz, elkartzeko eta biltzeko denbora hau ospatu eta gozatu egingo dugu lagunekin, familiarekin, Getxon Gabonetako ilusioa eta urte berri baten hasiera ospatu nahi duten pertsona guztiekin. Getxoko EAJ-PNVk, benetan, 2025a oparotasunez eta bakoitzak nahi dituen etorkizuneko aukerekin iristea nahi dugu.

ZORIONAK, EGUNBERRI ON ETA 2025 URTE ZORIONTSUA IZAN DAIGUN.



JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ONA GETXOZTARRENTZAT

Gabonak partekatuzeko, hausnartzeko eta etorkizunari ilusioz begiratzeko unea dira. Getxoko PPK getxoztar guztiekin konpartitu nahi ditugure desiorik onenak jai hauetarako. Aurten ere ahalegin eta konpromiso egin dugu lan udalari osoari mesede egingo dioten akordio garrantzitsuak lortzeko. 2025erako udal aurrekontuetan izan dugun parte-hartzeari esker hobekuntzak bultzatu dira irisgarritasunean, adibidez **Foru kalean arrapalak jartzeko** proposamenarekin, eta, gainera, beste akordio batzuen artean, tokiko merkataritzari eskaintzen zaion laguntza indartu da,

ekonomia dinamizatzeko. Halaber, gizarte-arloan, handitu egin dira **Gurutze Gorria eta Argia Fundazioa** bezalako erakundeei emandako dirulaguntzak eta ELAren ikerkuntza bultzatu, **Dale Candela** bezalako proiektu solidarioak babestuz gain. Halaber argi berdea eman zaio **Poligono Gorrian kultura- eta gizarte-zentro berri bat** sortzeari, arreta emateko zerbitzuak herritarrei hurbiltzeko. 2025ari begira, auzokideekin dugun konpromisoa berresten dugu eta lanean jarraitzen dugu guztientzat hobea den Getxo eraikitzeko. **Eguberri on eta urte berri on!**



EUSKO JAURLARITZAKO BI TXOSTENEK UDALA OHARTARAZI DUTE HAPO DELA ETA

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako bi txostenek zalantzan jarri dituzte EAJk, PPK eta PSEk behin-behinean onartutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) hainbat alderdi.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak argitaratu duen txostenak azpimarratzen duenez, "Fadura handitzeko proposamena bertan behera geratu behar da, Hezeguneen LA-Pak Bolueko hezegunearentzat ezartzen duen zonaketearekin eta erregulazioarekin eta hezegunearen katalogazioa eragin

zuten natura-balioen kontserbazioarekin bateragarria dela bermatzen ez den bitartean".

EH Bilduk egoera hori salatu zuen duela hilabete batzuk, eta handitze hori berriz aztertze eskatu genuen, akuiferoen kutsadurarekiko "kalteberatasun handiko" eremu gisa kalifikatuta baitago. Gogora dezagun Fadura handitzea kategoria hauetan katalogatuta dauden lurretan egingo litzatekeela: Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Landazabala; Ekosistemak Hobeitzeko Eremua eta berreskuratu beha-

rreko Eremu Degradatua. Beste txosten garrantzitsu bat Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egin du. Bertan, berriz ere eskatu diote Udalari udalerriko eraikin babestuen katalogoa handitzeko, eta ez uzteko eraisten eraikin babes-tuak, ez osorik, ez partzialki.

Txostenak Getxon gertatutako azken eraipekin ere salatzen ditu, hala nola Haurtegia edo Irurak Bat, eta ohartarazten du Getxoko HAPO berriarekin ondare historikoa galtzen jarrai dezakegula, Tosun, Martiturrin, Perunen,

Dendarienan... "Justifikaziorik gabeko deskatalogazio hori eta udalaren eremu periferikoaren etorkizuneko garapenak mehatxu dira ondasun horientzat, haien babesa galduz gero eraitsi egin daitezkeelako".

Zuzendaritzak ondorioztatu duenez, "ez dira ulertzen desafekzioaren arrazoiak", eta ondasun horiek babestuak izatea azpimarratu du: "tokiko erakundeak benetako zaintza-konpromisoa hartu behar du". EH Bildutik bat gatoz kezka horrekin, eta jarraitu beharreko hurrengo urratsak aztertzen ari gara. Info: getxo.ehbildu.eus.



2025. URTEAN AURRERA JARRAITZEKO. JAI ZORIONTSUAK!



AURREKONTU KONTINUISTAK

Urte honek erronka eta ikaskuntza asko uzten dizkigu, baina baita **Getxo hobetzeko ilusioz eta konpromisoz lan egin izanaren poza ere**. Udal Talde Sozialistak gure desiorik onenak helarazi nahi ditugu eta **ilusiozko mezua bidali gure bizilagunei 2025erako**. Urte berriari begira gure konpromisoa berresten dugu, beti bezala **Getxo bidezkoagoa, jasangarriagoa eta solidarioagoa bultzatzen jarraitzeko**, eta hori pertsonak erdigunean jarriko dituzten proiektuekin egiteko asmoa dugu, **gure adinekoak zainduz** eta gure gazteentzako oraina eta etorkizun duina ziurtatuz. Jai zoriontsuak!



Getxok, aurten ere, aurrekontu kontinuitate izango ditu, EAJk eta PSEk PPrekin egindako itunaren ondorioz. Elkarrekin Podemosek osoko zuzenketa aurkeztu dio 2025erako aurrekontuari. Izan ere, egin dituzten kontuek alde batera uzten dituzte etxebizitza eskuratzeko benetako politikak eta ahaztu egiten dute eskola publikoa, eta ez diete erantzuten gero eta saturatuago dauden gizarte-zerbitzuei.